

Xedapen Orokorrak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

2113

77/2009 DEKRETUA, apirilaren 7koa, Klima-aldaketaren Euskal Bulegoaren gainekoa.

Gure jendarte globalak aurrez aurre dituen ingurumen-arazo guztien artean, klima-aldaketaren mehatxua da, seguru asko, garrantzitsuena, ez soilik eskuragarri dauden azterlanetan iragartzen diren eraginaren indarragatik, baizik baita, bereziki, fenomenoaren hedaturagatik eta gure bizitzeko eta ekoizteko moduarekin duen ezin bananduzko inbrikazioagatik ere.

Horren jakitun izanik, 2002an, 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarriaren Ingurumen Estrategian sartu zen, bost jomugen artean, «klima-aldaketaren eragina mugatzea». Jomuga orokor horren arloan, 2002-2006 aldirako Ingurumeneko lehen Esparru Programan eta 2007-2010 aldirako onartu zen bigarrenean, konpromiso zehatzak hartu ziren.

VIII. legegintzaldi honetan gobernuak egingo dituen ekintzen Koalizio-hitzarmenean ere onartzen da garrantzitsua dela klima-aldaketari aurre egitea eta berotegi-efektua eragiten duten gasen isuria murriztea, «gizon-emakumeen biziraupena eta egiazko garapena bermatzeko»; eta hartutako konpromisoen artean Klima-aldaketari Aurre egiteko Plana onartzea proposatu zen.

Aurrekari horiekin, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2007ko abenduaren 4an, 2008-2012 aldirako Klima-aldaketari Aurre egiteko Euskal Plana onartu zuen. Bertan daude zehaztuta gai horretan erantzukizuna duten sektoreetan eragiteko estrategia, helburuak eta jarduteko ildoak. Planean, Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa, gai horretan Jaurlaritzako sailek dituzten politikak koordinatzeko ardatza da.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuan, zioen azalpenean eta Ingurumen Sailburuordetzari dagozkion zereginen azalpenean, kutsadurari aurre hartzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko ingurumen-kalitateko politikak daude bilduta. Arlo horretan, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Ihobe Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa SAREN laguntza teknikoa dauka. Sailari atxikitako sozietate publikoa da, eta bitarteko

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

2113

DECRETO 77/2009, de 7 de abril, sobre la Oficina Vasca de Cambio Climático.

De entre todos los problemas ambientales a los que nuestra sociedad global se enfrenta, la amenaza del cambio climático es probablemente el más importante, no sólo por la intensidad de los impactos pronosticados en los diferentes estudios científicos disponibles, sino especialmente por la extensión del fenómeno y su imbricación inseparable con nuestro modo de vida y producción.

Conscientes de ello, ya en el año 2002, la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 incluyó como una de sus cinco metas «limitar la influencia del cambio climático». Dentro de esta meta general, tanto el primer Programa Marco Ambiental, 2002-2006 como el segundo, aprobado para el periodo 2007-2010, formularon una serie de compromisos concretos.

También el Acuerdo de Coalición para la acción de gobierno en esta VIII legislatura reconoce la importancia de la lucha contra el cambio climático y la reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero como «garantía para la supervivencia de la humanidad y su verdadero desarrollo», planteando entre los compromisos asumidos la aprobación de un Plan de Lucha contra el Cambio Climático.

Con estos antecedentes, el Consejo de Gobierno, con fecha 4 de diciembre de 2007, aprobó el Plan Vasco de Lucha contra el Cambio Climático 2008-2012, en el que se definen la estrategia, objetivos y líneas de actuación para incidir en el conjunto de los sectores con responsabilidad en esta materia. Dicho plan contempla la figura de la Oficina Vasca de Cambio Climático como eje coordinador del conjunto de las políticas de los diferentes Departamentos del Gobierno en esta materia.

Por su parte, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, recoge tanto en su exposición de motivos como en las funciones que corresponden a la Viceconsejería de Medio Ambiente la formulación de las políticas de calidad ambiental para la prevención de la contaminación y lucha contra el cambio climático. En esta materia, el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio cuenta con el apoyo técnico de la Sociedad

gisa, Sailarekin elkarlanean jarduten du, bere politikak gauzatzeko.

Azaldutakoaren arabera, Klima-aldaketari Aurre egiteko Euskal Bulegoa sortu da Dekretu honekin, bere zeregina eta funtzioak ezarri dira, eta bere egitura eta eraketa zehaztu dira.

Horrenbestez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak proposaturik, Euskal Herriko Ingurumen Batzordeak txostena egin ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko apirilaren 7an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa sortu da, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa, eta Dekretu honetan arautu da antolamendua eta funtzionamendua.

2. artikulua.– Funtzioak.

Klima-aldaketaren Euskal Bulegoak ondoko funtzio hauek beteko ditu:

– Klima-aldaketara egokitzeko politiketan eta klima-aldaketari loturik Eusko Jaurlaritzak gauzatzen dituen ekintza guztietan koordinazioa sustatu eta segimendua egitea. 2008-2012 aldirako Klima-aldaketari Aurre egiteko Euskal Planean ezarritako jarraibideak hartuko dira aintzat, eta kontuan izango da beti urrakortasunaren, horren arriskuaren eta hartu beharreko egokitzapen-neurrien inguruko ezagutzak.

– Klima-aldaketari aurre egitearen arloan eskumenak dituzten organo guztiei helaraziko zaizkie ekintza-proposamenak.

– Klima-aldaketari Aurre egiteko Euskal Plana gartzean Eusko Jaurlaritzako sailek landutako araudien aurreproiektuak, planak eta programak ezagutu eta horren inguruko jakinarazpenak egitea.

– Eusko Jaurlaritzako sailen artean zeharkako ekintzak bultzatzea, klima-aldaketara egokitzea errazteko eta berotegi-efektua eragiten duten gasen isuriak murrizteko.

3. artikulua.– Bulegoaren eraketa.

1.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa honela eratu da:

– Presidentea: ingurumenaren arloan eskumena duen Saileko sailburu titularra.

– Presidenteordea: ingurumenaren arloan eskumena duen sailburuordea.

Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A., sociedad pública que tiene adscrita y que como medio instrumental propio colabora con el Departamento en la ejecución de sus políticas.

De acuerdo con lo expuesto, el presente Decreto crea la Oficina Vasca de Cambio Climático, establece su misión y funciones y define su estructura y composición.

En su virtud, previo informe de la Comisión Ambiental del País Vasco, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Vasco en su sesión celebrada el día 7 de abril de 2009,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Se crea la Oficina Vasca de Cambio Climático como órgano colegiado adscrito al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, regulándose en el presente Decreto su organización y funcionamiento.

Artículo 2.– Funciones.

La Oficina Vasca de Cambio Climático ejercerá las siguientes funciones:

– Promover la coordinación y realizar las labores de seguimiento pertinentes de las políticas de adaptación al cambio climático y de todas aquellas actuaciones que, en relación con la lucha contra el cambio climático, sean desarrolladas por el Gobierno Vasco, siguiendo las directrices establecidas en el Plan Vasco de Lucha Contra el Cambio Climático 2008-2012 y atendiendo siempre al conocimiento disponible de la vulnerabilidad, riesgo derivado de ésta y medidas de adaptación a adoptar.

– Elevar propuestas de actuación a todos aquellos órganos que ostenten competencias en relación con la lucha contra el cambio climático.

– Conocer e informar sobre los anteproyectos normativos, planes y programas elaborados por los distintos Departamentos del Gobierno Vasco en desarrollo del Plan Vasco de Lucha contra el Cambio Climático.

– Impulsar las actuaciones de carácter transversal entre los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, para favorecer la adaptación al cambio climático y disminuir las emisiones de gases de efecto invernadero.

Artículo 3.– Composición de la Oficina.

1.– La Oficina Vasca de Cambio Climático tendrá la siguiente composición:

– Presidenta o Presidente: la Consejera o Consejero titular del Departamento competente en el área de Medio Ambiente.

– Vicepresidenta o Vicepresidente: la Viceconsejera o el Viceconsejero competente en el área de Medio Ambiente.

– Idazkaria: Ihobe SA Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoko zuzendari nagusia.

Kideak:

– Uraren Euskal Agentziaren ardura duen sailburua.

– Sailburuorde mailako pertsona bat, 5 arlo haue-
tako bakoitzean eskumena duten sailetakoa: industria;
exebizitza; unibertsitateak eta ikerketa; garraioa eta
nekazaritza.

2.– Aipatutako pertsonak izendatzea pertsona horiek
ordezkatuko dituzten sailetako titularrei dagokie, eta
horrekin batera, ordezeko gisa, sail bereko beste perso-
na batzuk izendatuko dira, eta goi-kargudunak izango
dira.

3.– Salbuespenetan, presidenteak gonbidatuta, or-
gano honen bileretara deitu ahal izango zaie honako
hauei, horregatik organoko kide izango ez diren arren:
Bulegoan ordezkariarik ez duten Eusko Jaurlaritzako
beste sailetako ordezkariak, beste administrazio publiko
batzuetako ordezkariak edo arloan adituak diren perso-
nei. Jorratuko diren gaiak hobeto aztertze-
ko beharrezkoa edo komenigarria denean egingo da hori.

4.– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak
eskainiko dio laguntza tekniko Klima-aldaketaren
Euskal Bulegoari, Ihobe SA sozietatearen bidez; gaiak
prestatzea izango da sozietatearen lana, eta, hala dago-
kionean, Bulegoan aztertuko diren txosten-proposame-
nak egitea. Helburu horrekin, zehazkiak duten sailetako
teknikarien lankidetzaz baliatu ahal izango dira, eta be-
harrezkoa denean, berariazko lantaldeak eratuko dira,
Bulegoak zuzen jardutea ziurtatzeko behar diren laneko
agiri teknikoak prestatu, analizatu eta aztertze-
ko.

4. artikulua.– Funtzionamendu arauak.

1.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa ohiko bil-
kuratan elkartuko da, gutxienez urtean bitan. Edozein
unetan, Bulegoak bilera bat egin ahal izango du, presi-
denteak erabakita edo kideen erdiek eskatuta.

2.– Bileretarako deia egitea presidentearen zeregina
da. Idazkariak egingo die deia Bulegoko kide guztiei,
eta gai-zerrenda bidaliko die.

3.– Bulegoaren bilera egiteko, kideen gehiengo osoa
bertaratu beharko da. Quorum hori lortzen ez bada, bi-
garren deialdian egin ahal izango da bilera, betiere lehen
deialdirako ezarritako egunean egiten bada; gutxienez,
Bulegoko kideen heren bat bertaratu beharko da.

– Secretaria o Secretario: la Directora o el Director
General de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental,
Ihobe, S.A.

Vocales:

– La Viceconsejera o el Viceconsejero del cual de-
penda la Agencia Vasca del Agua.

– Una persona con rango de Viceconsejera o Vice-
consejero de los Departamentos competentes en cada
una de las 5 siguientes áreas: Industria; Vivienda; Uni-
versidades e Investigación; Transportes y Agricultura.

2.– La designación de las personas señaladas corres-
ponderá a la persona titular de los distintos Departame-
ntos representados, quien designará asimismo en
calidad de suplentes, otras personas del mismo Depar-
tamento con rango de Alto Cargo.

3.– Excepcionalmente, previa invitación de la Presi-
denta, podrán citarse a las reuniones de este órgano, sin
que por ello pasen a formar parte del mismo, a repre-
sentes de otros Departamentos del Gobierno Vasco
que no cuenten con representación en la Oficina o de
otras administraciones públicas o a personas expertas en
la materia, cuando ello sea necesario o conveniente para
la mejor consideración de los asuntos a tratar.

4.– El apoyo técnico a la Oficina Vasca de Cam-
bio Climático lo prestará el Departamento de Medio
Ambiente y Ordenación del Territorio, a través de su
sociedad instrumental Ihobe, S.A. y para ello le corres-
ponderá la preparación de los asuntos y, en su caso, las
propuestas de informe que se sometan a la considera-
ción de la Oficina. A tal fin podrá contar con la co-
laboración de personal técnico de los Departamentos
afectados, constituyéndose cuando ello sea necesario
grupos de trabajo específicos para la preparación, análi-
sis y estudio de los documentos técnicos de trabajo que
sean necesarios para asegurar el correcto funcionamien-
to de la Oficina.

Artículo 4.– Normas de Funcionamiento.

1.– La Oficina Vasca del Cambio Climático se re-
unirá, de manera ordinaria, al menos dos veces al año.
En cualquier momento, la Oficina puede reunirse de
manera extraordinaria por decisión de la Presidenta o a
petición de la mitad de sus miembros.

2.– La convocatoria de las reuniones corresponderá
a la Presidenta. El Secretario cursará las citaciones de la
convocatoria que, acompañadas del orden del día, de-
berán ser notificadas a todas y todos los miembros de
la Oficina.

3.– Para la válida celebración de las reuniones de la
Oficina será necesaria la asistencia de la mayoría absolu-
ta del número de sus miembros. Si este quórum no fue-
ra alcanzado, podrá celebrarse válidamente la reunión
en segunda convocatoria, siempre que se lleve a cabo
a lo largo del día señalado para el primer llamamiento,
debiendo acudir, al menos, un tercio de las y los miem-
bros de la Oficina.

4.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, eta presidentek izango du lehentasun-botoa, berdinketa gertatzen denean erabakia hartzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoaren jarduna Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Ihobe SA Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bitarteko materialekin gauzatuko dute, erakunde horietako langileek.

Bigarrena.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa osatu behar duten pertsonak izendatzean, emakume eta gizonezkoen arteko oreka lortzeko ahalegina egingo da, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa betez.

Hirugarrena.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoko kide izateagatik ez da ordainsaririk jasoko, baina zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren arabera kideei dagozkien dietak eta kalte-ordainak jasoko dira.

Laugarrena.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoan euskeraren erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea bete egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Klima-aldaketaren Euskal Bulegoak jarduteko bere arauak ezarri ahal izango ditu, Dekretu honetan ezarritakoa alde batera utzi gabe; eta berariaz xedatuta ez dagoen guztirako, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) kide anitzeko organoei buruz ezarritako araubidea aplikatuko da.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 7an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta
Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

4.– La Oficina Vasca del Cambio Climático adoptará sus acuerdos por mayoría simple, correspondiendo a la Presidenta el voto de calidad para dirimir en su caso los posibles empates.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– El funcionamiento de la Oficina Vasca de Cambio Climático será atendido con los medios materiales y los recursos humanos disponibles en el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio y en la Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe, S.A.

Segunda.– En el nombramiento y designación de las personas que han de formar parte de la Oficina Vasca de Cambio Climático se procurará una presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Tercera.– La pertenencia a la Oficina Vasca de Cambio Climático no dará lugar a retribución alguna, sin perjuicio de las dietas e indemnizaciones que puedan corresponder a sus miembros de conformidad con el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Cuarta.– Se garantizará el cumplimiento de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera en el seno de la Oficina Vasca de Cambio Climático.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La Oficina Vasca del Cambio Climático podrá establecer sus propias normas de funcionamiento, sin perjuicio de lo establecido en el presente Decreto y, en todo lo no dispuesto expresamente, será de aplicación supletoria el régimen que sobre los Órganos Colegiados está contenido en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.